

Lesakako azentu eta intonazioaz

IÑAKI GAMINDE *

Artikulu honen helburua Lesakako euskararen azentu eta intonazioareki-ko lehen hurbilpena egitea da. Lesaka Bonaparte erregegaiak eginiko sailkapen ospetsuaren arabera Ipar Goi Nafarreraren Berako barietatearen barruan kokatua da. Azentuari dagokionez, eta Mitxelena-k¹ (1972) aferahonezaz eginiko sailkapena gogotan erabilirik, berak izendatu IV tipoaren barruan kokatzen da.

Lesakako azentu sistiman, gainerako barietate gehienetan gertatzen denaren antzera, azentuarekin atxekitzten den izari akustiko nagusia oinarrizko maiztasuna dela esan dezakegu; hala ere, eta ikusiko dugun moduan, osagaiaren silaba azentudunarekin atxekitzten den oinarrizko maiztasunik altuena egongunearen araberakoa da, hots, beti silaba azentuduna ez da oiarritzko maiztasunik altuena daukana, intonazioak berau aldaraz dezake eta.

Hemen aurkezten ditugun seinaleen datuak lortzeko seinaleak Bilboko Ingiadiore Eskolako irakaslea den Inmaculada Hernáezek garatutako “Ahotsa” programa erabili izan dugu².

Artikulu honen lehen zatian izen eta adjetiboen azentueraren erregela nagusiak deskribatuko ditugu; bigarren zatian deklinabidean eta aditza jokatzean aplikatzen diren azentua txertatzeko erregelak gordetzen direnentz iku-siko dugu. Azkenik, hirugarren zatian, esaldi deklaratzaire eta galderazkoen intonazioaz ihardungo dugu.

1. IZEN ETA ADJETIBOEN AZENTUA

Alor honetan jaso ditugun datuak aurkeztu baino lehen, mugatzailea oinari eranstean gertatzen diren egokitzapenak aurkezteari garrantzitsu deri-

* UPV.EHUKO irakasle.

1. “A Note on Old Labourdin Accentuation” in ASJU-VI, 67-109. Donostia.

2. Datuak, Lesakako euskarari buruz egina duen eskuizkribuaren kontsulta eta lan honi buruzko iradokizunak lankide eta lagun dudan Julen Maiari zor dizkiot. Bihoazkio hemendik nire eskerrik beroenak.

tzagu, izan ere, azterketa honek azentua txertatzeko eremua zein den iradokiko digu.

1.1. Mugatzaileen egokitzeko erregelak

Lesakan mugatzailea oinari eranstea jazotzen diren bokal aldaketak azaltzeko aplikatzen diren erregela fonologikoak ondoko hauek ditugu:

- (1) a —> ø / _ a(k) ##
- (2) ø —> y / í _ a
- (3) e, o —> i, u / _ a
- (4) a —> ø / i, u _ k

(2) txertaketa erregela hitzaren azentuak baldintzatua da, hots, /i/ bokala azentuduna izaki, /y/ txertatzen da, ez bestela; txertaketa eta txertaketa ezaren adibibide zenbait honako hauek ditugu:

ogíya	arpégia
mendíya	igúzkia
idíya	ittúrria
begíya	afária
erríya	edária
arríya	bazkária

Horrenbestez, eta erregelen aplikazioaren adibidetza, ondoko deribazioak eman ditzakegu:

Singularrak:

	neska + a	gazte + a	ogi + a	arpegi + a	asto + a	buru + a
Azentua	neská + a	gazté + a	ogí + a	arpégi' + a	astó + a	burú + a
Afijazioa	neskáa	gaztéa	ogía	arpégia	astóa	burúa
(1)	neská	-	-	-	-	-
(2)	-	-	ogíya	-	-	-
(3)	-	gaztía	-	-	astúa	-
Azkenik	neská	gaztía	ogíya	arpégia	astúa	burúa

Pluralak:

	neska + ak	gazte + ak	ogi + ak	arpegi + ak	asto + ak	buru + ak
Azentua	neská + ak	gazté + ak	ogí + ak	arpégi + ak	astó + ak	burú + ak
Afijazioa	neskáak	gaztéak	ogíak	arpégiaak	astóak	burúaak
(1)	neskák	-	-	-	-	-
(2)	-	-	ogíyak	-	-	-
(3)	-	gaztíak	-	-	astúaak	-
(4)	-	gaztík	-	arpégik	astúk	burúk
Azkenik	neskák	gaztík	ogíyak	arpégik	astúk	burúk

1.2. Jasotako datuak

Izen eta adjetiboen azentueraren adibidetza jaso ditugun hitzen singularrak eta pluralak bereiz emango ditugu; batetik, sintagmen silaba korupuak eta, bestetik, azentua txertatzen den silaba kontutan hartzen ditugularik.

1.2.1. Singularrak

Silaba bikoak

(ó-o):

ába	béltza	béya	górra	kía	lúrra
mátsa	máya	óna	súa	txárra	úra
zárra					

(o-ó)

azá	gaztá	neská
-----	-------	-------

Hiru silabakoak:

(o-ó-o)

abárka	abétsa	adárra	aizía	alába	amátxi
apéza	arána	ardíya	ardúa	aríya	arótza
arríya	astúa	atórra	attáutxi	begíya	berátza
besúa	biáxtza	bidía	biótza	burúa	egíya
egúrra	eltzáurra	eltzía	elúrra	erréka	erríya
erróta	eskúa	ezúrra	garrátza	gaztía	gerríya
gizóna	goórra	idíya	illárra	illía	itsúa
itxía	katúa	kopéta	laúna	mendíya	mingáñia
muskérra	mutílla	odóla	ogíya	ollárra	ollúa
oríya	paréta	patáta	pipérra	políta	sagárra
sudúrra	tipúla	tokíya	trumóya	tximíxta	txoríya
urdáya	uríya	zabála	zakúrra	zerríya	zuríya

(ó-o-o)

básua	góttia	gwátzia	kábia	píkua	pórrua
sémia					

Lau silabakoak (o-ó-o-o)

afária	alárguna	arágia	arpégia	arrátoya	azkázala
barátzia	bazkária	biárria	edária	gerézia	giltzúrdiña
igándia	igúzkia	illárgia	ittúrria	kazkábarra	landária
manyíria	marúria	mutíkua	okúndua	olláskua	sukáldia
tellátua	udária				

1.2.2. Pluralak

Silaba bikoak:

(ó-o)

lúrrak	ónak	txárrak	úrak	sémik
--------	------	---------	------	-------

(o-ó)

neskák	azák	katük	astük
--------	------	-------	-------

Hiru silabakoak:

(o-ó-o)

afárik	alábak	apézak	atórrak	bazkárik	egíyak
egúrrak	eltzáurra	errótak	idíyak	landárik	laúnak

medíkuk	muskérrak	mutíkuk	mutíllak	ollárrak	sagárrak
sukáldik	tabérnak	tellátuk	tokíyak	udárik	

Lau silabakoak (o-ó-o-o)
arrátoyak alárgunak

Ematen ditugun datuen azalpen fonologikorako, lehen lehenik, azentua erroak, afijazioa baino lehen, hartzen duela esan dezakegu; izan ere, [y]-ren txertaketa azentuak baldintzatuta agertzen da. Azentua oin ez markatuetan txertatzen da ondoko erregelaren arabera:

(1) Azentua 2. silaban ([2]) edo libre dagoen silaban

Oin markatuak azentu lexikala lehen silaban daukatenak dira. Azentua behin ezarri gero, mugatzailearen afijazioa eta beronen egokitzapenerako aplikatu behar diren erregelak datozen; adibidez:

	txar + a	neska + a	ogi + a	arpegi + a	alargun + a
Azentua	txár	neská	ogí	arpégi	alárgun
Afijazioa	txárra	neskáa	ogía	arpégia	alárguna
Egokitzapen.	-	neská	ogíya	-	-
Azkenik	txárra	neská	ogíya	arpégia	alárguna

Procedura berberau singularrean zein pluralen agertzen zaigu.

2. DEKLINABIDEAREN AZENTUA

Deklinabidearen azentua aztertzeko, jaso ditugun hitzen taulak bividun eta bizigabeen arteko banaketaren arabera emango ditugu.

Bividunen alorreko deklinabidean “neska”, “mutil” eta “alargun” hitzen paradigmak batu ditugu:

NESKA	MUTIL	-	ALARGUN	
Singularra	Plurala	Singularra	Plurala	Singularra
neská	neskák	mutílla	mutíllak	alárguna
neskák	neskák	mutíllak	mutíllak	alárgunak
neskári	neskári	mutíllari	mutíllari	alárgunari
neskána	neskána	mutíllana	mutíllena	alárgunana
neskákin	neskákin	mutíllakin	mutíllekin	alárgunakin
neskántzat	neskántzat	mutíllantzat	mutíllentzat	alárgunantzat
neskángatik	neskángatik	mutíllangatik	mutíllengatik	alárgunangatik
neskángana	neskángana	mutíllangana	mutíllengana	alárgunangana

Bizigabeen paradigmak osatzeko “erri” eta “ostatu” hitzak aukeratua ditugu; hona hemen taulak:

ERRI		OSTATU	
Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
erríyan	errítan	ostátun	ostátutan
erríra	errítara	ostártura	ostártutara
errítik	errítik	ostátutik	ostártutik
erríkua	errítakua	ostátukua	ostártakua
erríño	errítaño	ostátuño	ostártuña

Ikusten denez, izen eta adjetiboen eskema azentual berberari paradigma osoan eusten zaio, bai bizidunen deklinabidean, bai bizigabeelean.

3. ADITZ JOKATUEN AZENTUA

Aditz jokatuen eskema azentualekiko lehen hurbilketa hau egin ahal izateko, silaba bateko, biko eta hiru silabako partizipio zenbait aukeratu ditugu. Aspektu perfektuaren jokabidea ikusteko laguntzailetzat “dut”, silaba batekoa eta “duzu”, bikoa, erabiliko ditugu; honezaz ostean, aditz berberen aspektu ez-perfektua eta geroaldia ere ikusiko ditugu³.

Silaba bateko partizipioak:

íl dut	íl duzu	íltzen dut	íllentzu
yó dut	yó duzu	yótzen dut	yókuzu
yán dut	yán duzu	yáten dut	yánuntzu

Silaba biko partizipioak:

erré dut	erré duzu	errétzen dut	errékuzu
edán dut	edán duzu	edáten dut	edánuntzu
galdú dut	galdú duzu	galtzén dut	galdúkuzu
yosí dut	yosí duzu	yostén dut	yosíkuzu
saldú dut	saldú duzu	saltzén dut	saldúkuzu

Hiru silabako partizipioak:

erósi dut	erósi duzu	erósten dut	erósikuzu
ekárri dut	ekárri duzu	ekártzen dut	kárrikuzu
ikúsi dut	ikúsi duzu	ikústen dut	kúsikuzu
berótua dut	berótua zu	berótzen dut	berótukuzu
zanpátua dut	zanpátua zu	zanpátzen dut	zanpátukuzu
galdétu dut	galdétu zu	galdézen dut	galdétukuzu

Aditzetan, izen eta adjetiboa legez, erregelea bat baino ez da aplikatzen, hots, partizipioak azentua bere gain hartzen du bigarren silaban edo libre dagoen silaban, partizipioa markatua ez bada. Partizipioa markatua denean, azentua lehen silaban txertatzen da eta ez da bertatik lekutzen; adibidez:

xétu ut	xétu uzu	xétzeut	xétukozi
---------	----------	---------	----------

Silaba bakarreko partizipioek markatua balira bezala funtzionatzen dute; azentua partizipioaren silaba bakarrak hartzen du eta ez da lekutzen. Silaba biko partizipioen kasuan, berriz, aspektuaren morfemak eransteaan, azken silaba galtzen badute aspektuaren morfemak berak beregantzen du azentua.

3. Gure informatzailearen arabera, sarritan kontrakzioen ondorioz forma bikoitzak gertatzen dira, hemen ez ditugu adieraziko azentuaren kokaeran eraginik ez daukate eta.

4. INTONAZIOA

Ataltxo honetan intonazioaren eredu batzuk lortzekotan, esaldi deklaratzaille eta galderazko zenbait aztertuko ditugu. Horretarako hiru silabako sintagmez osatutako ondoko osaldia oinarritzat hartu dugu:

gizonak neskari sagarra salduzjok

Esaldi horren sintagma kopuruuen arabera, sintagma bat eta aditza (SA), sintagma bi eta aditza (SSA) eta hiru sintagma eta aditza (SSSA) konbinazioak aztertuko ditugu. Bestalde, sintagma kopurua ezezik, euron egonguneen araberako konbinazioak ere kontutan hartuko ditugu, bai esaldi deklaratzailleean zein galderazkoetan. Gure azterketa hau egin ahal izateko lortutako seinalen oinarrizko-maiztasunen neurketez baliatu gara; hori dela eta, ematen ditugun zenbaki guztiak berorri dagozkio eta hertzetan adierazirik daude.

4.1. Esaldi deklaratzailleak

Gorago aipatutako sintagma kopuru eta egonguneen araberako datu akustikoen emaitzak eta kurben grafikoak aurkeztuko ditugu jarraian.

SA

- (1) gizonak salduzjok
- (2) neskari salduzjok
- (3) sagarra salduzjok

SA	1	2	3	4	5	6
(1)	111	152	179	125	142	106
(2)	120	178	176	137	141	101
(3)	112	156	171	133	136	98
media	114,33	162	175,33	131,66	139,66	101,66
barian	4	11	3	5	3	3

AS


- (4) salduzjok gizonak
- (5) salduzjok neskari
- (6) salduzjok sagarra

AS	1	2	3	4	5	6
(4)	116	177	146	116	125	95
(5)	116	172	156	120	123	101
(6)	122	168	149	118	110	94
media	118	172,33	150,33	118	119,33	96,66
barian	3	4	4	2	7	3

SA eta AS esaldi ereduen bataz-besteko bidez ondoko taula eta grafikoa osa ditzakegu:

	1	2	3	4	5	6
SA	114,33	162	175,33	131,66	139,66	101,66
AS	118	172,33	150,33	118	119,33	96,66

GRAFICO 1



SSA

- (7) gizonak neskari salduzjok
(8) neskari gizonak salduzjok
(9) gizonak sagarra salduzjok
(10) sagarra gizonak salduzjok
(11) neskari sagarra salduzjok
(12) sagarra neskari salduzjok

SSA	1	2	3	4	5	6	7	8	9
(7)	116	159	176	116	150	174	128	140	94
(8)	122	158	178	133	156	148	130	126	94
(9)	115	156	182	124	153	156	119	126	103
(10)	119	155	192	119	155	133	119	121	97
(11)	130	165	198	146	165	187	135	155	99
(12)	131	153	187	126	173	164	133	135	104
media	122,16	157,66	185,5	127,33	158,66	160,33	127,33	133,83	98,5
barian	6	4	8	10	8	17	6	11	4

SAS

- (13) gizonak salduzjok neskari
(14) neskari salduzjok gizonak
(15) gizonak salduzjok sagarra
(16) sagarra salduzjok gizonak
(17) neskari salduzjok sagarra
(18) sagarra salduzjok neskari

SAS	1	2	3	4	5	6	7	8	9
(13)	116	152	174	130	157	167	111	125	97
(14)	117	153	174	131	167	171	124	131	103
(15)	121	169	182	149	167	173	128	122	92
(16)	126	164	182	149	165	156	130	139	94
(17)	124	176	191	158	178	174	133	133	96
(18)	131	169	185	164	176	180	122	139	97
media	122,5	163,83	181,33	146,83	168,33	170,16	124,66	131,5	96,5
barian	5	9	6	13	7	7	7	6	3

ASS


- (19) salduzjok neskari gizonak
 (20) salduzjok gizonak neskari
 (21) salduzjok gizonak sagarra
 (22) salduzjok sagarra gizonak
 (23) salduzjok neskari sagarra
 (24) salduzjok sagarra neskari

ASS	1	2	3	4	5	6	7	8	9
(19)	122	149	189	126	164	171	124	142	92
(20)	130	183	198	131	167	176	126	133	97
(21)	130	192	200	137	167	180	126	131	94
(22)	128	178	194	139	156	178	121	135	97
(23)	124	187	203	142	156	162	131	135	92
(24)	132	193	202	144	167	174	132	139	99
media	127,66	180,33	197,66	136,5	162,83	173,5	126,66	135,83	95,16
barian	4	15	5	6	5	6	4	4	3

Aurreko sintagmen konbinazioen bidez lortu ditugun bataz-bestekoak erabiliz ondoko taula eta grafikoa osa ditzakegu:

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
SSA	122,16	157,66	185,5	127,33	158,66	160,33	127,33	133,83	98,5
SAS	122,5	163,83	181,33	146,83	168,33	170,16	124,66	131,5	96,5
ASS	127,66	180,33	197,66	136,5	162,83	173,5	126,66	135,83	95,16

GRAFICO 2



LESAKAKO AZENTU ETA INTONAZIOAZ

SSSA

- | | | | | |
|------|---------|---------|---------|------------|
| (25) | gizonak | neskari | sagarra | saldu zjok |
| (26) | gizonak | sagarra | neskari | saldu zjok |
| (27) | neskari | sagarra | gizonak | saldu zjok |
| (28) | neskari | gizonak | sagarra | saldu zjok |
| (29) | sagarra | neskari | gizonak | saldu zjok |
| (30) | sagarra | gizonak | neskari | saldu zjok |

SSSA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
(25)	132	172	202	126	175	190	144	169	163	120	126	96
(26)	126	175	193	135	166	187	129	163	141	117	126	93
(27)	120	163	187	144	172	187	123	172	129	114	117	99
(28)	129	181	202	123	178	199	138	163	178	129	138	96
(29)	126	175	184	138	175	193	120	166	129	117	123	96
(30)	129	175	187	141	163	193	123	166	147	126	111	93
med	127	173	192	134	171	191	129	166	148	120	123	95
bar	4	5	7	8	5	4	9	3	18	5	8	2

SSAS

- | | | | | |
|------|---------|---------|------------|---------|
| (31) | gizonak | neskari | saldu zjok | sagarra |
| (32) | gizonak | sagarra | saldu zjok | neskari |
| (33) | neskari | sagarra | saldu zjok | gizonak |
| (34) | neskari | gizonak | saldu zjok | sagarra |
| (35) | sagarra | neskari | saldu zjok | gizonak |
| (36) | sagarra | gizonak | saldu zjok | neskari |

SSAS	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
(31)	123	178	193	147	176	190	150	160	141	114	111	96
(32)	126	166	199	129	163	175	135	144	138	114	120	99
(33)	126	173	196	132	172	166	135	141	126	114	117	102
(34)	126	178	192	145	178	168	135	147	135	130	111	97
(35)	128	166	195	126	173	168	140	145	137	118	128	95
(36)	128	168	190	128	176	142	130	137	123	111	121	97
med	126	171	194	134	173	168	137	146	133	117	118	98
bar	2	5	3	8	5	14	6	7	7	6	6	2

SASS

- | | | | | |
|------|---------|------------|---------|---------|
| (37) | gizonak | saldu zjok | sagarra | neskari |
| (38) | gizonak | saldu zjok | neskari | sagarra |
| (39) | neskari | saldu zjok | gizonak | sagarra |
| (40) | neskari | saldu zjok | sagarra | gizonak |
| (41) | sagarra | saldu zjok | gizonak | neskari |
| (42) | sagarra | saldu zjok | neskari | gizonak |

SASS	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
(37)	130	188	204	154	183	190	147	159	161	121	128	102
(38)	126	171	195	171	183	176	130	149	145	128	118	99
(39)	128	171	199	171	188	197	154	171	164	140	123	95
(40)	130	166	202	188	202	199	157	161	152	137	126	97
(41)	123	164	188	154	176	183	133	161	159	121	135	99
(42)	123	161	190	154	180	190	135	161	157	118	123	95
med	127	170	196	165	185	189	143	160	156	127	125	98
bar	3	9	6	13	8	8	11	6	6	8	5	2

ASSS


- (42) salduzjok sagarra neskari gizonak
 (44) salduzjok neskari sagarra gizonak
 (45) salduzjok gizonak sagarra neskari
 (46) salduzjok sagarra gizonak neskari
 (47) salduzjok gizonak neskari sagarra
 (48) salduzjok neskari gizonak sagarra

ASSS	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
(43)	130	185	221	149	178	195	145	176	185	130	137	99
(44)	126	197	209	137	164	197	135	159	176	118	137	95
(45)	128	192	228	164	178	207	145	166	178	126	145	97
(46)	130	195	235	161	176	190	133	161	152	116	130	95
(47)	135	197	223	154	176	190	140	171	168	128	133	96
(48)	130	185	214	142	178	188	152	168	173	128	130	95
med	130	192	222	151	175	194	142	167	172	124	135	96
bar	3	5	9	10	5	6	6	6	10	5	5	1

Hiru sintagmez osatutako esaldien emaitza akustikoen bataz-bestekoen bidez ondoko taula eta grafikoa egin ditzakegu:

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
SSSA	127	173	192	134	171	191	129	166	148	120	123	95
SSAS	126	171	194	134	173	168	137	146	133	117	118	98
SASS	127	170	196	165	185	189	143	160	156	127	125	98
ASSS	130	192	222	151	175	194	142	167	172	124	135	96


GRAFICO 3



Aditzaren aurreko sintagma kopurua gehitzen dela, lortutako emaitzen bataz-bestekoen bidez ondoko taula eta grafikoa lortzen ditugu:

SA	114	162	175	132	140	102
SSA	122	158	185	127	159	160
SSSA	127	173	192	134	171	191


GRAFICO 4



Hona hemen aditzaren aurreko eta osteko sintagma kopuruaren aldaketten ondorengo taula eta grafikoa:

SAS	122	164	181	147	168	170	125	131	96			
SSAS	126	171	194	134	173	168	137	146	133	117	118	98
SASS	127	170	196	165	185	189	143	160	156	127	125	98


GRAFICO 5



Azkenik, ondoko taulan eta grafikoan, aditza esaldiaren lehen osagaia dela, beronen osteko sintagma kopuru desberdinaren araberako emaitzak ikus daitezke:

AS	118	172	150	118	119	97						
ASS	128	180	198	136	163	173	127	136	95			
ASSS	130	192	222	151	175	194	142	167	172	124	135	96

GRAFICO 6



Esaldi guztien hasierako silabeい bagagozkie, sintagma kopurua eta euron kokaguneak kontutan hartuta honako emaitzok dauzkagu:

	SA	AS	SSA	SAS	ASS	SSSA	SSAS	SASS	ASSS
Hz.	114	118	122	123	128	127	126	127	130

Kasu guztietan, aditza esaldiaren hasieran badago, silaba harean altuagoa da, beste edozein sintagma dagoenean baino. Bestalde, zenbat eta esaldia luzeagoa izan, orduan eta altuxeagoa da lehen silaba. Amaierako silabari dagokoinez, lortu ditugun emaitzak ondoko hauek izanda,

	SA	AS	SSA	SAS	ASS	SSSA	SSAS	SASS	ASSS
H	102	97	99	97	95	96	98	98	96

ez dirudi erlaziorik dagoenik luzerarekin; aitzitik, oso finkoa dela esan dezakegu, bataz-bestekoak 97 hertzekoa izanik.


Esaldi osoaren gailurra (AS-ren kasuan izan ezik) esaldiaren lehen sintagmaren azken silaban kokatzen da kasu guztietan, euron bataz-bestekoak ondoko hauek izanik:

	SA	SSA	SAS	ASS	SSSA	SSAS	SASS	ASSS
Hz.	175	185	181	197	192	194	196	222

Kasu honetan, hasierako silabarenean legez, aditza esaldiaren hasieran dagoenean gailurra altuagoa da beste edozein sintagma dagoenean baino; gainera, esaldiaren gailurraren altuera esaldiaren luzeera osoarekin erlazionatuta dago, koerlazioa 0,99koa izanik.


Hasiera, gailurra eta amaieraren altuera desberdinez ondoko grafikoa osa dezakegu, esaldiaren hasieran aditza ez den sintagma bat dagoenean:

GRAFICO 7



Aditza esaldiaren hasierako gunean dagoenean, ondoko beste hau dugu:

GRAFICO 8



Aditza geroagoko utzita, jarraian sintagmen silaben bataz-bestekoak aztertuko ditugu kokagune desberdinaren arabera. Hasierako sintagmen bataz-bestekoak ondoko taulan ikus daitezke:


	1. silaba	2. silaba	3. silaba
SA	114	162	175
SSA	122	157	185
SAS	122	163	181
SSSA	127	173	192
SSAS	126	171	194
SASS	126	170	196

Aurreko emaitzak esaldian dagoen sintagma kopuruaren arabera batzen baditugu ondoko beste taula hau dugu:

	1. silaba	2. silaba	3. silaba
Sintagma bat	114	162	175
Sintagma bi	122	161	183
Hiru sintagma	126	172	194

Lehen sintagma honetan esaldi osoaren gailurra kokatzen da, grafikoki honela geratuko litzaizkiguke:

GRAFICO 9




Esaldiaren azken sintagmaren emaitzei bagagozkie, ondoko beste hau dugu:

	1. silaba	2. silaba	3. silaba
AS	118	119	97
SAS	125	132	97
ASS	127	136	95
SSAS	117	118	98
SASS	128	126	98
ASSS	124	135	96

Esaldian agertzen den sintagma kopuruaren arabera, goiko emaitzak batuta, ondoko beste hau dugu:

	1. silaba	2. silaba	3. silaba
Sintagma bat	118	119	97
Sintagma bi	125	134	96
Hiru sintagma	122	126	97

GRAFICO 10



Aditzaren aurrean kokatzen diren tarteko sintagmei dagokienez, bereiztu egin behar ditugu fokalizatuta daudenak eta ez daudenak; hala, esaldiaren bigarren sintagmei bagagozkie, fokalizatutako sintagmek erdiko silaba altuagoa daukate; esate baterako, SSA 126-173-164 eta SSAS 135-173-168; aitzitik, bigarren sintagma fokalizatuta ez badago silabarik altuena azkena da, SSSA 135-172-192. Hirugarren sintagman, fokalizatuta dagoenez gero, erdiko silaba altuagoa da, SSSA 130-167-148. Aditzaren ostean kokatzen diren tarteko sintagmetan, amaieran ez daudenez, silabarik altuena orohar azkena da.

Azentu eta intonazioaren arteko loturari bagagozkio, esan beharra dago ezen, azentu eredu nagusiari dagozkion tonuak (B-A-B) isolatuki, kopularekin talde klitikoa osatzuz, esaldiaren amaiera absolutuan eta galdegaigunean baino ez dela gertatzen, azken egongune honetan ere, baldin eta galdegaia esaldi osoaren lehen sintagma ez bada. Gainerako egonguneetan sintagmen

tonurik altuena azentua dagoen silaban egon beharrean azken silaban egoten da.

4.2. GALDERAZKO ESALDIAK

Galderazko esaldien eredu gisa, aztertu berri ditugun esaldi deklaratziale berberen galderazkoak hartuko ditugu. Datuen aurkezpenari dagokionez, orden berari jarraituko diogu.

SA

- (1) gizonak salduzjok?
- (2) neskari salduzjok?
- (3) sagarra salduzjok?

SA	1	2	3	4	5	6
(1)	114	162	192	189	212	245
(2)	105	132	186	203	224	257
(3)	111	153	203	215	242	266
media	110	149	194	202	226	256
bariantza	4	13	7	11	12	9

AS


- (4) saldu zjok gizonak?
- (5) saldu zjok neskari?
- (6) saldu zjok sagarra?

AS	1	2	3	4	5	6
(4)	109	162	201	212	224	248
(5)	108	174	212	201	227	254
(6)	120	195	233	230	239	242
media	112	177	215	214	230	248
bariantza	5	14	13	12	6	5

SA eta AS-ren bataz-bestekoak erabilita, ondoko taula eta grafikoa egin ditzakegu:

	1	2	3	4	5	6
SA	110	149	194	202	226	256
AS	112	177	215	214	230	248

GRAFICO 11



SSA

- (7) gizonari neskari saldu zjok?
 (8) neskari gizonak saldu zjok?
 (9) gizonak sagarra saldu zjok?
 (10) sagarra gizonak saldu zjok?
 (11) sagarra neskari saldu zjok?
 (12) neskari sagarra saldu zjok?

SSA	1	2	3	4	5	6	7	8	9
(7)	114	174	206	117	141	198	201	239	260
(8)	123	186	221	117	159	209	215	239	251
(9)	117	163	200	124	143	190	212	227	251
(10)	111	161	202	123	145	195	202	225	253
(11)	120	174	228	134	168	223	224	250	257
(12)	126	163	214	127	169	218	211	224	237
media	118	170	212	124	154	205	211	234	251
barian	5	9	10	6	12	12	8	9	7

SAS

- (13) gizonak saldu zjok neskari?
 (14) neskari saldu zjok gizonak?
 (15) gizonak saldu zjok sagarra?
 (16) sagarra saldu zjok gizonak?
 (17) neskari saldu zjok sagarra?
 (18) sagarra saldu zjok neskari?

SAS	1	2	3	4	5	6	7	8	9
(13)	111	144	198	189	218	221	203	224	224
(14)	111	141	203	203	230	239	227	233	227
(15)	114	149	201	220	252	231	225	229	229
(16)	113	151	207	211	229	246	232	236	236
(17)	112	149	205	216	244	223	228	241	241
(18)	112	155	214	211	235	245	228	238	238
media	112	148	205	208	235	234	224	233	232
barian	1	5	5	10	11	10	10	6	6

ASS

- (19) saldu zjok neskari gizonak?
 (20) saldu zjok gizonak sagarra?
 (21) saldu zjok sagarra gizonak?
 (22) saldu zjok neskari sagarra?
 (23) saldu zjok sagarra neskari?


ASS	1	2	3	4	5	6	7	8	9
(19)	123	184	205	193	210	223	215	228	231
(20)	105	186	236	195	215	248	222	242	239
(21)	126	196	245	237	241	254	239	261	245
(22)	121	202	247	239	237	252	248	248	232
(23)	120	203	235	218	228	235	233	243	235
media	119	194	234	216	226	242	231	244	236
barian	7	8	15	20	12	12	12	11	5

LESAKAKO AZENTU ETA INTONAZIOAZ

SSA, SAS eta ASS ereduen bataz-bestekoak erabilita, ondoko taula eta grafikoa osatzen ditugu:

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
SSA	118	170	212	124	154	205	211	234	251
SAS	112	148	205	208	235	234	224	233	232
ASS	119	194	234	216	226	242	231	244	236

GRAFICO 12



SSSA

- (24) gizonak neskari sagarra salduzjok?
 (25) gizonak sagarra neskari salduzjok?
 (26) neskari sagarra gizonak salduzjok?
 (27) neskari gizonak sagarra salduzjok?
 (28) sagarra neskari gizonak salduzjok?
 (29) sagarra gizonak neskari salduzjok?

SSSA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
(24)	123	170	213	175	185	205	130	152	205	215	235	253
(25)	123	175	203	162	193	205	135	167	210	215	240	245
(26)	109	180	220	167	200	210	135	175	220	220	235	251
(27)	125	195	220	178	200	218	134	175	215	225	243	253
(28)	120	170	193	165	185	198	123	165	208	205	223	228
(29)	127	188	215	175	195	218	132	175	210	220	235	243
med	121	180	211	170	193	209	131	168	211	218	235	245
bar	6	9	10	6	6	7	4	8	5	4	6	9

SSAS

- (30) gizonak neskari salduzjok sagarra?
 (31) gizonak sagarra salduzjok neskari?
 (32) neskari sagarra salduzjok gizonak?
 (33) neskari gizonak salduzjok sagarra?
 (34) sagarra neskari salduzjok gizonak?
 (35) sagarra gizonak salduzjok neskari?

SSAS	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
(30)	117	172	205	125	180	213	225	243	245	243	238	233
(31)	125	180	213	125	172	213	213	233	245	230	235	238
(32)	117	180	225	127	175	218	225	243	253	235	245	245
(33)	127	190	225	130	172	218	218	240	245	235	235	235
(34)	120	180	218	127	183	225	228	243	251	235	248	243
(35)	115	172	213	130	183	223	225	243	248	235	238	240
med	120	179	216	127	177	218	222	241	248	235	240	239
bar	4	6	7	2	5	5	4	3	4	5	4	

SASS

- (36) gizonak salduzjok sagarra neskari?
 (37) gizonak salduzjok neskari sagarra?
 (38) neskari salduzjok gizonak sagarra?
 (39) neskari saldusjok sagarra gizonak?
 (40) sagarra salduzjok gizonak neskari?
 (41) sagarra salduzjok neskari gizonak?

SASS	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
(36)	122	185	220	228	245	253	215	228	235	225	235	238
(37)	123	172	200	205	220	225	213	218	218	215	220	218
(38)	115	162	215	225	248	258	235	245	243	233	251	245
(39)	115	155	225	230	243	253	225	235	240	233	243	235
(40)	122	160	225	218	235	243	218	235	240	228	238	235
(41)	122	180	223	220	238	243	218	225	233	225	235	225
med	120	169	218	221	238	246	221	231	235	226	237	233
bar	3	11	9	8	9	11	7	9	8	6	9	9

ASSS


- (42) salduzjok sagarra neskari gizonak?
 (43) salduzjok neskari sagarra gizonak?
 (44) salduzjok gizonak sagarra neskari?
 (45) salduzjok sagarra gizonak neskari?
 (46) salduzjok gizonak neskari sagarra?
 (47) salduzjok neskari gizonak sagarra?

ASSS	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
(42)	107	170	230	213	228	235	215	225	240	213	245	268
(43)	115	185	235	218	220	235	208	230	235	223	238	251
(44)	122	195	240	210	232	238	205	223	228	215	233	251
(45)	127	213	253	218	230	238	208	233	240	215	235	248
(46)	125	220	253	215	225	238	213	230	243	225	243	235
(47)	112	195	230	203	218	225	203	218	228	220	243	235
med	118	196	240	213	225	235	209	226	236	218	239	248
bar	7	17	10	5	5	5	4	5	6	4	4	11

Azkenik, hiru sintagmako esaldi eredu desberdinaren bataz-bestekoak bidez honako taula eta grafikoa ditugu:

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
SSAS	121	180	211	170	193	209	131	168	211	218	235	245
SSAS	120	179	216	127	177	218	222	241	248	235	240	239
SASS	120	169	218	221	238	246	221	231	235	226	237	233
ASSS	118	196	240	213	225	235	209	226	236	218	239	248


GRAFICO 13



Esaldi deklaratzaleekin egin dugun moduan, jarraian sintagmen gehiketen ondorioz oinarritzko-maiztasunen kurben jokaerak ikus ditzakegu, tauletan zein grafikoetan:


SA	110	149	194	202	226	256						
SSA	118	170	212	124	154	205	211	234	251			
SSSA	121	180	211	170	193	209	131	168	211	218	235	245

GRAFICO 14




SAS	112	148	205	208	235	234	224	233	232			
SSAS	120	179	216	127	177	218	222	241	248	235	240	239
SASS	120	169	218	221	238	246	221	231	235	226	237	233

GRAFICO 15



AS	112	177	215	214	230	248						
ASS	119	194	234	216	226	242	231	244	236			
ASSS	118	196	240	213	225	235	209	226	236	218	239	248

GRAFICO 16



Aurreko datuetan oinarrituta, sintagmek hasieratik fokora era bateko jokaera daukatela eta fokotik amaierara arte beste bat esan dezakegu. Bestalde, erkatzen baditugu esaldi deklaratzaleak eta galderazkoak, desberdintasunik handienak hortxe gertatzen direla argi agertzen da; jarraian sintagma orden bakoitzaren bataz-bestekoak deklaratzaleetan (D) eta galderazkoetan (G) erkatuko ditugu:


SA	1	2	3	4	5	6
D	114	162	175	132	140	102
G	110	149	194	202	226	256

GRAFICO 17




AS	1	2	3	4	5	6	7	8	9
D	122	158	185	127	159	160	127	134	98
G	118	170	212	124	154	205	211	234	251

GRAFICO 18



SSSA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
D	127	173	192	134	171	191	129	166	148	120	123	95
G	121	180	211	170	193	209	131	168	211	218	235	245


GRAFICO 19



LESAKAKO AZENTU ETA INTONAZIOAZ


SAS	1	2	3	4	5	6	7	8	9
D	122	164	181	147	168	170	125	131	96
G	112	148	205	208	235	234	224	233	232

GRAFICO 20




SSAS	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
D	126	171	194	134	173	168	137	146	133	117	118	98
G	120	179	216	127	177	218	222	241	248	235	240	239

GRAFICO 21




SASS	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
D	127	170	196	165	18	189	143	160	156	127	125	98
G	120	169	218	221	238	246	221	231	235	226	237	233

GRAFICO 22




AS	1	2	3	4	5	6
D	118	172	150	118	119	97
G	112	177	215	214	230	248

GRAFICO 23




ASS	1	2	3	4	5	6	7	8	9
D	127	180	198	136	163	173	127	136	95
G	119	194	234	216	226	242	231	244	236

GRAFICO 24



ASSS	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
D	130	192	222	151	175	194	142	167	172	125	135	96
G	118	196	240	213	225	235	209	226	236	218	239	248

GRAFICO 25



Aurrekoak ikusita, galderazko esaldien gailurra esaldi osoaren azken silaban kokatzen dela esan dezakegu. Lehen silabaren bataz-bestekoei bagagozkie, aditza hasieran ez badago, 118 hertzeko bataz-bestekoa dugu; aditza hasieran dagoenean, berriz, 126koa da batazbestekoa. Gailurrarena, hasieran sintagma bat dagoenean, 242 hertzekoa da eta, aditza egonez gero 261 hertzekoa.

Aurreko datuak kontutan hartuta, esaldi deklaratzileen tonuak txertatzeko badirudi maila desberdinak proposatu behar ditugula. Batetik, esal-

diaren osagai bakoitzaren azentua kokatuta dagoen silaban tonu altua (A*) txertatuko litzateke, kasu eta egongune guztieta, inguruneko silaben tonuen aldean azentudun silabak beti tonu altuarekin agertzen da; honekin batera aurreko silabaren tonu baxua ere txertatu beharko litzateke. Bestetik, esaldi mailan osagai nagusi bi bereiztu egiten direla proposa dezakegu, bata hasieratik fokalizatutako osagairainokoa eta bestea aditzetik amaierara artekoak

Hona helduta, osagaien mutur bietan tonu baxuak txertatuko lirateke (B%), eta maila honetako osagai nagusietan ez dauden sintagmen azken silabetan tonu altuak ere bai. Azkenik, esaldi osoaren gailurraren tonu altua (A') lehen sintagmaren azken silaban kokatuko litzateke. Jarraian deribazioetarako adibide bi ematen ditugu:

- (1) gizonak neskari sagarra saldu zjok
- (2) gizonak saldu zjok sagarra neskari

	(1) gizónak (gizónak)	neskárra (neskári)	sagarra (sagárra)	saldu zjok (saldú zjok)
A* eta B txertatu	B A	B A	B A	B A
Osagaiak mugatu	(gizónak)	(neskári)	(sagárra)]	(saldú zjok)]
	(gizónak)	(neskári)	(sagárra)]	(saldú zjok)]
Muga tonuak txertatu	B A	B A	B A B%	B A B%
	(gizónak)	(neskári)	(sagárra)]	(saldú zjok)]
Tarteko A txertatu	B A A	B A A	B A B%	B A B%
	(gizónak)	(neskári)	(sagárra)]	(saldú zjok)]
Gailurraren A' txertatu	B A A'	B A A	B A B%	B A B%

	(2) gizónak (gizónak)	saldú (saldú zjok)	zjok (sagárra)	sagárra (neskári)
neskári				
A* eta B txertatu	B A	B A	B A	B A
Osagaiak mugatu	(gizónak)]	(saldú zjok)	(sagárra)	(neskári)]
	(gizónak)]	(saldú zjok)	(sagárra)	(neskári)]
Muga tonuak txertatu	B A B%	B A	B A	B A B%
	(gizónak)]	(saldú zjok)	(sagárra)	(neskári)]
Tarteko A txertatu	B A B%	B A A	B A A	B A B%
	(gizónak)]	(saldú zjok)	(sagárra)	(neskári)]
Gailuraren A' txertatu	B A A'	B A A	B A A	B A B%

Esaldi deklaratzairen eta galderazkoen arteko desberdintasunik nabarmenenak fokalizatutako osagaiaren amaierako silabatik esaldiaren amaierara artean gertatzen dira; desberdintasun hauetaz azaltzeko, badirudi, osagai nagusien muga tonuak baxuak barik, altutzat hartu behar ditugula, bestalde, gailurraren tonua esaldiaren azken silaban kokatu behar dugu. Azkenik esaldiaren bigarren osagaiaren tonu baxu guztiak altu bihurtzen dira. Adibidetzat aurreko esaldi bien galderazkoak eman ditzakegu:

	(1) gizónak (gizónak)	neskári (neskári)	sagárra (sagárra)	saldú zjok? (saldú zjok)
A* eta B txertatu	B A	B A	B A	B A
Osagaiak mugatu	(gizónak)	(neskári)	(sagárra)] (saldú zjok)]	(sagárra)] (saldú zjok)]
Muga tonuak txertatu	B A (gizónak)	B A (neskári)	B A A% (sagárra)] (saldú zjok)]	B A A% (sagárra)] (saldú zjok)]
Tarteko A txertatu	B A A (gizónak)	B A A (neskári)	B A A% (sagárra)] (saldú zjok)]	B A A% (sagárra)] (saldú zjok)]
Gailuraren A' txertatu	B A A (gizónak)	B A A (neskári)	B A A% (sagárra)] (saldú zjok)]	B A A' (sagárra)] (saldú zjok)]
B A bihurtu	B A A	B A A	B A A% A A A'	A A A'
	(2) gizónak (gizónak)	saldú zjok (saldú zjok)	sagárra (sagárra)	neskári (neskári)
A* eta B txertatu	B A	B A	B A	B A
Osagaiak mugatu	(gizónak)]	(saldú zjok)	(sagárra)	(neskári)]
Muga tonuak txertatu	B A A% (gizónak)]	B A (saldú zjok)	B A (sagárra)	B A A% (neskári)]
Tarteko A txertatu	B A A% (gizónak)]	B A A (saldú zjok)	B A A (sagárra)	B A A% (neskári)]
Gailuraren A' txertatu	B A A% (gizónak)]	B A A (saldú zjok)	B A A (sagárra)	B A A% (neskári)]
B A bihurtu	B A A%	A A A	A A A	A A A%

Hemen aurkeztu dugun azterketarako proposamena behin-behinekotzat baino ezin har daiteke, aurrerantzean hitz ez-markatudun esaldi eredu ikerketa sakonagoa egitea ezezik, oso interegarritzat jotzen dugu halaber, hitz markatuen jokabidearen azterketa egitea.

LABURPENA

Artikulu honetan Lesakako euskararen azentu eta intonazio ereduen ikerketarekiko lehen hurbilpena aurkezten dugu.

Lehen sección izen eta adjetiboen acentu erregela nagusiak deskribatzen dira; bestalde, acentu erregela eta mugatzalea egokitzeko erregelen arteko erlazioa ere agirian utzi nahi da.

Geroago, izen eta adjetiboetarako eman ditugun erregelak deklinabidean gordetzen diren edo ez aztertzen da, hala nola aditz jokatuen azentua txertatzeko erregelak ere.

Azkenik, intonazioari buruzko sección, esaldi deklaratzaleak eta galderazkoak aztertzen dira, oinarriztat euron azterketa akustikoa hartzen delarik. Sekción honetan, behin deklaratzaleak eta galderazkoak, bakoitza bere aldetik, aztertuz gero, desberdintasunak azaltzeko euron arteko erkaketa egiten da.

RESUMEN

En este artículo presentamos una primera aproximación al análisis de los modelos de acento y entonación del euskara de Lesaka.

En la primera sección se describen las reglas principales del acento de los nombres y adjetivos; por otra parte, se quiere destacar la relación entre las reglas de inserción del acento y las reglas de adecuación del artículo.

Posteriormente, se analiza el funcionamiento de la regla de acentuación de los nombres y adjetivos en la declinación y las reglas de acentuación de los verbos conjugados.

Por último, en la sección dedicada a la entonación, se estudian las frases declarativas e interrogativas, tomando como base el análisis acústico de las mismas. Una vez analizadas las frases declarativas e interrogativas por separado, hemos comparado ambas con el fin de analizar las diferencias fundamentales.

RÉSUMÉ

Dans cet article nous présentons une première approche de l'analyse des modèles d'accent et d'intonation du basque de Lesaka.

Dans le premier paragraphe sont décrites les règles principales de l'accent des noms et des adjetifs; d'autre part, on veut faire remarquer la relation entre les règles d'insertion de l'accent et celles d'adéquation de l'article. Postérieurement, est analysé le fonctionnement de la règle d'accentuation des noms et des adjetifs dans la déclinaison et celles des verbes conjugués. Enfin, dans le paragraphe consacré à l'intonation, sont étudiées les phrases déclaratives et interrogatives, en partant de la base de leur analyse acoustique. Une fois les phrases déclaratives et interrogatives analysées séparément, nous les avons comparées afin d'en étudier les différences fondamentales.

ABSTRACT

This paper presents a first approximation to the models of accent and intonation of the Basque language of Lesaka.

In the first section the main rules of accent of nouns and adjectives are described; on the other hand, we attempt to point out the relationship between the rules governing accent insertion and article adjustment.

In the second section the functioning of the rule governing accentuation in the noun and adjective declension, and in the conjugated verbs is analysed.

Lastly, in the section dealing with intonation, declarative and interrogative sentences are studied from the point of view of their acoustic analysis. Once these declarative and interrogative sentences have been analysed separately, both sets are compared in orden to analyse their main differences.